

txinpart

hautzaro ikastolako aldizkaria

2002 Martxoa • 22. zenbakia



JOLAS PARKEAK

Haurtzaro ikastolak aurrera darrai bere instalakuntzak egokitzen. Izan ere, urtero-urtero behar izaten dira egokitzapenak eta aurpegi garbiketak.

Oraingoan frontoi ondoan zegoen jolas parkearen txanda iritsi da. Izan ere, zaharkitua zegoen eta abenduko oporren aurretik kentzea erabaki genuen.

Otsailaren hasieran jarri digute berria, eta gure ttikiek oso gustura estreinatu dute. Zarranbiloak ere jarriko ditugu, beheko goma osatzen dugunean.



Bestalde, jantoki atzeko parkea ere berrantolatuko dugu eta jolas parke dotorea jarriko dugu. Inguruko maldatxoetan ere eskaladako txokoak antolatuko ditugu.

Bukatzeko, Haurtzaro Ttiki ere parke polit bat antolatuko dugu Aste Santuko oporretan. Horrela, eguraldi ona egiten duenean, gure ttikiek txoko eder bat izango dute belar artean euren artean jolasteko.

La ikastola Haurtzaro en su afán de mejora continua, ha instalado nuevos parques infantiles para los alumnos más pequeños. Así, a comienzos del mes de febrero hemos estrenado el nuevo parque, al lado del frontón. El próximo trimestre contaremos con el parque renovado de la zona posterior al comedor. Durante esta Semana Santa esperamos acondicionar el parque para los más pequeños de Haurtzaro Ttiki. Si deseáis, podéis ver los diferentes planos.



AURKIBIDEA

HAURTZARO INFORMATZEN	2
HATZAK BETE LAN	14
GURASOOK JAKIN DEZAGUN	26
GU ERE KAZETARI	30
NAHASTE BORRASTE	36



EDORTA PALACIOS IRAZUSTA

Edorta: Zurekin oso ondo pasatzen genuen eta barre asko egiten genuen; jolas dibertigarriak irakatsi zenizkigun, momentu onak eman zenizkigun

ESKERRIKASKO, muxu bat

4. mailako ikasle-irakasleak



Edorta, gure irakaslea,
Ez gaude oso ederki,
Gure bihotzak utzi dituzu
Eginikan mila zati.
Baina hala ere ez pentsa, gero,
Zaudenik horren urruti,
Zu joan arren gure ondoan
Izango baitzara beti.

Hamaika jolas, hamaika joko
Eginak zure eskutik,
Hamaika ipuin, hamaika aholku
Jasoak zure ahotik...
Eskerrik asko, bihotz-bihotzez
Zure maitasunagatik,
Muxu handi bat ikastolako
Zure lagunen partetik.

Hautzaro Ikastolako bihotza bete-betean harrapatu duen lurrikara izan dugu otsailaren hasieran. Edorta joan zaigu, baina bere oroimenak ez du gure aldamenetik alde egingo. Guretzat guztiontzat hortxe egongo da bere irribarrea eta xamurtasuna, eta gure bihotzeko txokorik ederrenean gordeko dugu Edorta.

Eskerrik asko Edorta, ikasle eta gero irakasle bezala eman diguzun guztiarengatik. Ez adiorik, gero arte baizik!!





2.HIRUHILEKO IRTEERAK

H.H.

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
2 URTE	2002/02	Iturriotzera eta Karrikara	Lehengo txokoetan ibiltzera
2 URTE	2002/03	Aireportura	Ingurua ezagutzera
2 URTE	2002/04	Baratzak ikustera	Gelako proiektuarekin lotua
H.H 1	2002/03/15	Herriko kaxkora	Herriko dendak ikusi
H.H 1	2002/03/21	Donostiara	Artelanarekin lotuta Zuloaga plaza eta ingurua ikusi
H.H 2	2002/03/6	Herriko plazara	Emakumeek egindako eskulanean erakusketa ikusi
H.H 2	2002/03/11	Herrira	Herriko lanbideak ezagutu
H.H2	2002/03/20	Ugaldetxora	Oiartzungo industrialdea ezagutu
H.H 3	2002/03/15	Oiartzundik zehar	Oiartzungo ezaugarriak: industrialdea, nekazaritza.... Ikusi

LH

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
2.maila	2002/01/30	Postetxera	Gaia landu
2. maila	2002/02/14	E.I.T.B.ra	Gaia landu
2. maila	2002/03	Zubietara	Elkarrizketak egin
3. maila	2002/03/11-12-13	Piraten etxera	Urteko ibilaldia
3. maila	2002/03/11	Donostiara	Banpiro txikia filma
4. maila	2002/03/11-12-13	Segurako barnetegira	Urteko ibilaldia
4. maila	2002/03/11	Donostiara	Banpiro txikia filma
4. maila	2002/03/14	Oñati - Arantzazura	Gaiaren lanketa
5.6 maila	2002/02/27	Ugaldetxora	Errealaren entrenamendua ikusi
5. maila	2002/03/15	Gernika – Guggenheim	Euskal Herria. Plastika. Harremanak







DBH

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
DBH3	2002-01-15	On Bide zinema	Baloreen lanketa
DBH4	2002-01-16	On Bide zinema	Baloreen lanketa
DBH1-2-3	2002-02-27	On Bide zinema	Baloreen lanketa
DBH 4	2002-03-5	On Bide zinema	Baloreen lanketa
DBH2	2002-03-21	Erniora	Gorputz H. lanketa
DBH 2	2002-01-21	Zerainera	Museoa, kartzela, zerra eta meategia bisitatu
DBH1-2	2002-01-31	Antzerkira	Ingelesaren lanketa
DBH3-4	2002-03-13	Antzerkira	Ingelesaren lanketa

Ekintza osagarriak: Eskalada ikastaroa.



DBH3 maila, otsailean.

TXERRIAREN
ZOZKETA

Aurtengo txerritxoak irakasle bati egokitu zitzaion: MIREN ARRUABARRENA URDANPILLETARI. Bere semea Xabierrek eta Alaia alabak, oso pozik jaso zuten txerrikumea. Bejondeiela hirurei!





PROSA POESIA LEHIAKETA

Oiartzungo Udak Euskara Batzordeak 1992an Oiartzungo prosa eta poesia lehiaketari ekin nahi izan zion berriro ere, Oiartzungo ikasleek sortutako lantxoak kaleratzeko asmoz.

Horrela bada, urtero-urtero Haurtzaro ikastolako ikasleek parte hartu izan dute lehiaketa honetan. Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleengandik hasi (8 urtekoak) eta Batxilergoko 2. maila (18 urtekoak) arterainoko ikasleek euren lanak prestatzen dituzte eta Udalean aurkeztu.

Horretarako, geletan ipuina eta poesiaren mamia lantzen hasten dira ikasturtearen hasieratik, eta azaroaren bukaerarako, prest izaten dituzte euren ipuin eta poesiak.

Aurtengo ikasturtean ere horrela gertatu da, eta jasotako sariak izugarriak izan dira Haurtzaroko ikasleengan. Izan ere, aurtengo ekitaldian Oiartzungo Udak 29 sari prestatuak zituen eta horietatik Ikastolako ikasleek 23 eskuratu dituzte. Argazkian ikus daitezke aurtengo sarituak.



Esan bezala, hauek izan dira aurtengo sarituak, baina parte hartu duten ikasle guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, jarri duten interesa txalogarria izan delako. Gure herriko kultura-harrobia dugu hemen eta ziur gaude bertako harriak landuz doazen heinean, Oiartzun izena ere goraiatua izango dela. Ea harrobi honetatik inoiz harri-bitxiren bat ateratzen den. Horrela jarraitzera animatuko ditugu datozen urteetan ere. Animo, euskal literaturaren geroa baitzarete!!

Bukatzeko, ezin dugu aipatu gabe utzi Ikastolako irakasleak. Hauen lana ere fina izan da. Aieka batetik interesa sortu, eta bestetik ikasleen aldamenean izan ditugu buru-belarri euren ipuina edota poesia bikain sor zezaten. Bejondeiela guztiei!!

El pasado 23 de diciembre el Ayuntamiento otorgó los premios del Campeonato de prosa-poesía que se organiza a nivel municipal. Como en ediciones anteriores, numerosos alumnos de la Ikastola habían participado en este último certamen, desde los 8 hasta los 18 años. Esta edición ha sido también muy fructífera para nuestra ikastola, ya que de 29 premios que se otorgaron, 23 recayeron en alumnos de nuestro centro. Desde estas páginas felicitamos a todos los participantes de este certamen, ya que pueden llegar a convertirse en futuros escritores vascos. Para finalizar, también felicitamos al profesorado de la ikastola por apoyar esta iniciativa y ayudar a los alumnos en su trayectoria creativa.



MATRIKULAZIO KANPAINA BUKATU DA ETA....

Guztiok dakigun bezala, urtero-urtero Haurtzaro Ikastolak, beste ikastetxeak bezalaxe, gure matrikulazio kanpaina antolatzen dugu eta aurtengoaren inguruko emaitzak azalduko dizkizuegu. Otsailaren 18an abian jarritako kanpaina martxoaren 1ean bukatu genuen eta gure ikastolari dagokionez hauexek dira esku artean ditugun datuak:

- 2 urteko geletara 48 familiak eman dute beren izena gure etxean.
- 3 urtetan, berriz, 65 haur izango ditugu gure artean irailetik aurrera.
- Beste mailetan ere izango ditugu ikasle berriak. Izan ere, LH 1. mailara, LH 2. mailara eta DBH 1. mailara hiru ikasle etorriko zaizkigu.

Haurtzaro Ikastolako partaide guztiok oso pozik gaude jasotako emaitzekin. Izan ere, 3 urteko haurren kasuan igoera nabarmena eman dugu aurtengoan, %14,5eko igoera hain zuzen ere. Iaz, berriz, 3 urtetan igoera eman genuen, bai, baina ez hain nabarmena, %3,7koa izan baitzen.

Lortutako emaitzak oso garrantzitsuak dira gure ikastolarentzat, eta igoera honek baieztatu egiten du Ikastolak bere garaian egindako apustua eta, batez ere, gurasoak konturatu egin direla Ikastolako eskaintza serioa eta kalitatezkoa dela. Era berean, oso pozik gaude 116 familiak Haurtzaro Ikastolan konfiantza osoa jarri dutelako. Ez da alferrik izango. Poliki-poliki gurean gustura sentitzen direla ohartuko dira. Ilusio horrekin jarraituko dugu egunero lanean.



Horrela bada, datorren urteko ikasleen kopurua hauxe izango da 732 ikasle 0-16 urte bitarteko tartean.

Como cada año, la Ikastola Haurtzaro ha llevado a cabo la campaña de matriculación desde el 18 de febrero hasta el 1 de marzo. Os presentamos aquí los resultados obtenidos.

A partir de septiembre tendremos 48 niños en las aulas de 2 años y 65 niños en las de 3.

Además, tres alumnos se integrarán en 1º y 2º de Primaria y 1º de ESO. Por tanto, estamos contentos con los porcentajes de matriculación de este año, en concreto, en 1º de Ed. Infantil (3 años) ha aumentado en un 14,5% con respecto al curso pasado.

Desde aquí damos la bienvenida a esas 114 familias oiartzuarras que han puesto toda su confianza en Haurtzaro Ikastola. Esperamos responderles gratamente todos los que diariamente trabajamos para que nuestro proyecto sea de calidad. Nuestra ilusión está en ello.



OIARTZO BATXILERGO IKASTOLAKO IKASLEAK: EMAITZARIK ONENAK, ONENA EMANEZ

Joan den urtarrilaren 16an, Donostiako ikuskari jaunak gure eskuetan jarri zituen 2000-2001eko ikasturtean OIARTZO BATXILERGO IKASTOLAKO ikasleek Selektibitatean lortutako emaitzak eta Gipuzkoako emaitzekin egindako alderaketa.

Jarraian, azken hiru ikasturteetan Oiertzo Batxilergo Ikastolako ikasleek 2. maila bukatutakoan jasotako emaitzak islatu ditugu:

OIARTZOKO IKASLEAK ETA SELEKTIBITATEA	URTEAK		
	1999	2000	2001
2. mailan matriculatutako ikasleak <i>Alumnos matriculados en 2º curso</i>	69	82	69
Deialdi arruntean selektibitateko probetara aurkeztutako ikasleak <i>Alumnos presentados a las pruebas en convocatoria ordinaria</i>	50	65	54
Matrikulatutako eta aurkeztutako ikasleen erlazioa <i>Relación de matriculados presentados</i>	%72	%76	%78
Deialdi arruntean selektibitatea gainditu zuten ikasleak <i>Alumnos que superaron la prueba en convocatoria ordinaria</i>	49	63	54
Deialdi arruntean aurkeztutako eta gainditutako ikasleen erlazioa <i>Relación de alumnos aprobados/presentados en convocatoria ordinaria</i>	%98	%97	%100
Matrikulatutako eta gainditutako ikasleen erlazioa <i>Relación de alumnos matriculados/aprobados</i>	%71	%77	%78
Espedienteetako batez besteko nota <i>Nota media de los expedientes</i>	7,26	7,47	7,14
Selektibitate probetako batez besteko nota <i>Nota media de la prueba de selectividad</i>	6,32	6,21	6,67
GIPUZKOAKO ikasleen selektibitate probetako batez besteko nota <i>Nota media de la prueba de selectividad (GIPUZKOA)</i>		5,94	5,98

Ikusten den bezala, azken ikasturtean Oiertzoko ikasle guztiek gainditu zituzten selektibitateko probak. Ez hori bakarrik, Oiertzoko ikasleek 2001eko selektibitatean lortutako batez besteko nota 6,67 izan zen, Gipuzkoako nota 5,98 izan zenean.

Bukatzeko, goraipatu egin nahi ditugu 2001eko ekainean Oiertzon Batxilergoa bukatu zuten ikasleak; bistan baitago egindako lanak bere fruituak eman dituela.

Joan den abenduaren 23an Erretereria-Oreretako Xenpelar gunean Oiertzon batxilergoa bukatu zuten ikasle-diploma-banaketa egin zen.

Ekitaldia amaitu ondoren, ikasleok gaur egungo ikasketei buruz jarduteko parada izan genuen.

Zorionak guztioi!!



El pasado 16 de enero el inspector del Departamento de Educación nos remitió los resultados académicos de las pruebas de selectividad del curso 2000-2001. Sabíamos que el 100% de los alumnos de OIARTZO había aprobado la prueba y nos ha parecido interesante que conozcáis más datos. Señalaremos que la nota media de los alumnos de OIARTZO en la selectividad ha sido de 6,67, mientras la media de Gipuzkoa se halla en 5,98.

Por otra parte, el pasado 23 de diciembre se celebró en Renteria-Orereta el reparto de diplomas a los alumnos que habían finalizado el bachillerato en OIARTZO.

Al finalizar el acto, los alumnos nos refirieron los estudios universitarios o ciclos de formación de grado superior que están realizando.

¡¡Felicidades a todos!!

IRAKURKETA

IRAKURKETA

alain.
 Ikarasi dit irakurtzen
 eta ibazten eta gustatzen
 baita eta hain
 dit partokan irakurtzen
 dit.
 Ikarasi dit irakurtzen eta
 ibazten ando dait et
 gustatzen baita eta
 irakurtzen ando gustatzen
 dit nere laguntza.
 eta dit gustatzen ando irakurtzen.
 eta ando gustatzen dit eta ando
 gustatzen ando gustatzen.
 eta ando gustatzen dit.
 eta ando gustatzen dit.

Pottaharen halebizia
gustatzen zait gustatzen
dut irakurtzea eta hor-
regatik gustatzen zait
irakurtzea.

Inaharria zira gustatzen
zait eta oso ondo
naxatzen dut inahar-
tan den gustatzen zait
laster ere esan behar
Zutela inaharria

1. MAILA

1. MAILA






EGUNKERIA

Guk ikastolan egunkari bat egin behar dugu eta orduan Martxo lezpuera
 Garaka gurendaria etorri zen atzo gure gelara eta haurak ziren.

Horutako albisteak zientzien kidez
 jakiten zituztela eta egunkari
 errotatibian inprimitzen dela.
 Egunkaria egiteko albiste
 aska behar direla. Egunkaria
 kazetariek egiten dute eta
 sekzioz banatuta egoten da.

Horri d-ordenak dituzte
 ordenagailu haurrak.



Ozenburua eluna jaritzen dute. Gehen egunkariak tekiagatik ziren.
 Gehen eskuz idazten zuten eta orain ordenagailuan.

2. maila

Gehen eskuz idazten zuten eta orain ordenagailuan.

2. maila



Inguzian 2. mailak Martxoaren



ZUKAL TELEK TAKA BINTA

Atera ginen ikastetako ikasleak
 igo eta berriz jai ginen. Ham-
 bi. Esera sartu eta gela haurak batan
 bildu ginen. Berak. Ham. Esera. Gutxi-
 ari. Aste. Berak. Berak. Berak. Berak. Berak.
 Ten garzki ikurten da eta haurak ikurten
 egiten direla.




goen kale. nola egiten gutxi ikur ginen
 telebista ikur ginen. ger. ger.
 kaleki kaleki jai ginen. Ham. ate. kat. ham.
 igo. ger. ger. ger. ger. ger. ger. ger. ger. ger. ger.

ginen. Berak. Berak. Berak. Berak. Berak.
 igo eta ikastetako jai ginen.

2. maila





3 URTE

GURETTIKIAK HANDITZEN ARI DIRELA BEGI BISTAN DAGO, GERO ETA AUTONOMOAK DIRA BERE GORPUTZA ETA INGURUA ZAITZERAKOAN.



4 URTE

GUK ERE LAU ANAIEN IPUINETAKO PERTSONAI BAT BEZALA JOSTEN IKASI DUGU.

Eta...





HERRIKO EMAKUMEAK ERE GU BEZALAXE JOSTEN DUTE!!!!!!!!!!!!!!

KAIXO TXINPARTEKO LAGUNAK:

ASMATUKO AL ZENUTEKE ARGAZKIAK
IKUSITA ZERTAN ARI GAREN? BA ESAN-
GO DIZUEGU:

MAKILAKIXKI IPUINA ANTZESTEN ARI
GARA. LEHENENGO ENSAIATU GENUEN
DENOK BATERA, GERO ESZENATOKIA
PRESTATU GENUEN ETA ONDOREN
BEHARREZKO GAUZAK PRESTATU ETA



ETXETIK EKARRI.AZKENEAN ONDOKO GELAKOEN-
TZAT ANTZEZTU EGIN GENUEN.

OSO ONGI PASA GENUEN MAKILAKIXKIREN
KANTA MAKILAREKIN LURRA JOAZ: MAKILAKIXKI
KIXKI KIXKI

MAKILAKIXKI KLAS!





ARROKAUNDIETAKO PIRATA – ETXEA

Kaixo lagunok! Hirugarren mailako ikasleak gaituzue.


Gu aurten Jaizkibelen kokaturik dagoen pirata-etxera joan gara hiru egun pasatzera.

Iristearekin batera Mari eta Patxi piratak ezagutu genituen. Gu ere berehalakoan bihurtu ginen SASI-PIRATAK.

Han goi-goian talaia (atalaia) dago eta hortik kortsarioek barkoak zelatatzen (bijilatzen) omen zituzten. Ederki bijilatu ere.

Bai ongi ibili ginela hango jolasetan, mendiko ibilalditan, txalupan, Planetarium-era ere jaitsi ginen, oinez gainera, nahiz eta euri eta kazkabarra egin.

Kanta asko ikasi genituen. Hori bai, piratenak ziren denak. Gainera guk ere asmatu genituen. Adibidez, hono-ko hauxe:



ARROKAUNDIETAKO PIRATAK
MALTZUR, MALTZUR, MALTZURRAK
PAINUELO ETA GUZTI
ALTXORRAREN BILA
JA, JA, JA, JA,
EZ DA NEKEAA
JA, JA, JA, JA
PIRATAK GARA GU
EUSKALDUNAK GARA
EUSKAL HERRIKOAK

(Eider Zabaleta Lopez)




A... Eta, janari goxo-goxoa jartzen zigun gure Aitor sukaldariak Aintzaneren laguntzarekin.


Zoazte, zoazte! Joaten bazarete seguru oso ondo pasako duzuela!

BAI ONGI IBILI GINELA!!!

3. MAILAKOAK



SEGURARA ITZULI NAHI DUT!!!!!!



Egoitza ederra, eroso eta handia zelako.

Begiraleak oso jatorrak zirelako. Jaionek Segura herria erakutsi zigun eta Josetxok eskolako antzerkia ikustera eta Segurako futbol zelaira eraman gintuen.

Takolo ere etorri zen baina Agustin zela esaten zuen.

Jolas asko zeudelako: ping-pong, petako, billar, futbolina, mini golf...

Jolas asko egin ditugulako: pote, punta, brilet, ...

Bazkaria oso goxoa zegoelako eta bazkal garaian barre asko egin ditugulako

Antzerkiak egin eta ikusi genituelako.

Denok mozarrotu ginen antzerkirako eta itxura barregarria genuen eta gero DISKOTEKA.

Gazta nola egiten den ikasi eta Zeraingo museoa ikusi genuelako.

Gure andereñoak gurekin jolasean ibiltzen zirelako eta ...TRANPAK EGITEN ZITUZTEN!!!!

Arrazoi gehiago behar al dugu?????





Otsailaren 27an, denok dakizuen bezala Errealak bere entrenamendua Ugaldetxon egin zuen. Hantxe azaldu ginen LH 5. eta 6. mailakook ere. A ze urduritasuna: "Jo! Gaur ez! Athleticceko kamiseta-rekin etorri naizela!" zion batek abiatu aurretik. Hantxe zeuden entrenatzaile, botilero eta jokalaria guztiak. Eta hantxe gu ere, eskuetan firmetarako boligrafo eta koadernoak eta begirada distiratsuetan gure jokalaria faboritoak: "Onena Kova da." "Nik nahiago De Pedro" "Ba guapoena Xabi Alonso dudarik gabe".

UNE JOLIE LETTRE



À Oratzen, le 17 j. n. 2002

Bonjour Ugaitz !
 Le carnaval est fini et les vacances aussi.
 Je me suis bien amusé durant le congé.
 Je suis allé Oratzen avec toi et j'ai
 fait insuite.
 Pour le carnaval je me suis déguisé
 en Lantz carnaval.
 J'espère que toi aussi tu te vois bien amusé.
 Qu'as-tu fait?

Bisouss Imanol !!!




hautzaro ikastola

INAUTERIAK 2002



HH I. Zikloa



2. Zikloa

H
H







L
H
I.
Zikloa




L
H
2.
Zikloa



LH 3.Zikloa



DBH I.Zikloa



DBH 2.Zikloa





IABADABADUBI!!!!!!!!!!!!!!

Aurtengoan ere joan zaigu

algaraz inauteria,

eguna, argitsu eta bizia;

ospizuna, lilugarria.

Eskerrak guraso, irakasle,

bertako ikasleria.

Datorrenerako hor gonbita:

zurretzat IKASLE OHIA


eta gure artean nahi zaitut

zu ere, GURASO BERRIA





EZIN



Lo que no pase en Estados Unidos...

Un hombre de Charlotte, Carolina del Norte, adquirió unos cigarros muy caros y los aseguró —entre otras cosas— contra incendios. Al cabo de un mes, después de haberse fumado los cigarros, y sin haber pagado siquiera el primer plazo de la póliza del seguro, formuló una reclamación afirmando que los cigarros se habían perdido en "una serie de pequeños incendios".

Naturalmente, la compañía de seguros se negó a pagar. Pero el "perjudicado" les demandó... ¡y ganó! Aunque el juez reconoció que la reclamación era frívola, argumentó que el hombre poseía una póliza en la que los cigarros estaban asegurados contra el fuego, contrato en el que no se definía qué se consideraba un fuego no aceptable. El magistrado sentenció que el demandante estaba en su derecho a cobrar la póliza. Para evitar el lento y costoso proceso judicial de recurrir, la compañía aceptó pagar al hombre cerca de dos millones de pesetas.

En cuanto el "damnificado" cobró el cheque, la compañía de seguros le hizo arrestar por haber provocado 24 incendios. Gracias a la reclamación y el testimonio utilizados contra la compañía, el hombre fue acusado por quemar intencionadamente una propiedad asegurada, la sentencia le obligó a cumplir 24 meses de cárcel y pagar una multa de más de tres millones de pesetas.

NAIARA RETEGI
LOREA MUGETA
BEÑAT MENDIZABAL
IGONE SALABERRIA
NEREA AIZPURU
ENEKOITZ MARKOS
NAGORE ZAPIRAIN
IKER IRIGOIEN
ELUSKA ETXEBERRIA
GARAZI LABORDETA

ZUZENDARIA: IÑAKI LERTXUNDI



ZERTAN ARI DIRA GURE TTIKIAK?

Hamar minutuko behaketa

Astelehena da. Goizean, kalean ibili gara eta bazkal ondoren hemen gaude gelan jolasean, egunero bezala. Axier, Ane, Eneko, Iker eta Nikolax aurkitzen dira une honetan gelaren barruan. 13 eta 17 hilabete tartean daude. Giro lasaia sumatzen da.

Ni, hezitzailea, gelako mahai batetan eserita jarri naiz eta behaketari ekin diot.

Nikolax gelan dagoen etxetxoaren barruan dago, bere eskuetan baloi arrosa bat duenari. Iker etxetik kanpoan dago eta bien artean elkar jolas bat sortu da: leihotik baloia bata besteari botatzea. Zein gustura dauden biak algaraka eta barrez!!



Axier hemen dabil baloi handi bat bere eskutxoekin hartuz. Tarteka zutik jartzen da harro-harro, alegia guk ere ikus dezagun nola eta inongo euskarririk gabe, gero eta denbora luzeagoan egoten den zutik.

Ane eserita dago bertan gertatzen ari den guztia begiratzuz, sagar pusketa bat jaten duen bitartean: bakoitzaren mugimendua begiratu, beste laguna zertan ari den ikusi...

Eneko, berriz, niregana hurbiltzen ari da gauza desberdinak ekarri eta erakutsiz. Bere aurpegiko keinu, adierazpen eta soinuekin gauza asko adierazi nahi dizkit.

Nikolax eta Ikerrek elkar jolasa utzi dute eta interesa beste eginkizunetan jarri dute. Iker baloi arrosarekin jarraitzen du, hankarekin jotzen dio "gol" esanez (kasualitatea ote bere ama futbol jokalaria ohia izatea?). Halako batean gortinaren atzean sartu zaio baloia eta bila joan denean kukuaren jolasa probokatzen hasi da.

Nikolax etxetxotik atera denean arrastrea hartu du eta bueltaxka bat eman ondoren ipuinen apal ondoran eseri da eta hauek ikusiz hizketan ari da.

Hara! Bat-batean Ikerrek min hartu du eta niregana etorri da. Nire magalean eseri dut eta goxo-goxo bere tripa ukitzen diot. Gustura aurkitzen gara.

Dagoeneko Anek sagar puxka bukatu du, bere ondoan botila desberdinak daude kaxa batetan. Hauekin hasi da jolasean beste kaxa batetara pasatuz. Aspertu denean arraskaren ingurura abiatu da eta arraska azpian dagoen armairuan saltsan hasi da. Ireki du, gauzak ateratzen hasi da eta azkenean bera izan da armairu barrura sartu dena: "Zer ote dago hemen barruan?"

Axier ere hor ikusten dut gomazko "txupatxus" handia bi eskuekin hartuta lurrean joaz. Halako batean konturatu da kirtena zanpatuta soinu ateratzen dela. Gustatu zaio deskubritu duena eta berehalaxe ekintza bera errepikatuz irribarrez begiratu nau, alegia ni ere kontura nadin egin duen aurkikuntzaz.

Iker, Ane, Nikolax, Eneko, Axier... hamar minutu hauetan zenbat gauza egin dituzuen! Eta zenbat gauza landu dituzuen konturatu gabe: elkar jolasa, kuriositatea, esperimentazioa, komunikazioa, patxada, objektu eta espazioari buruzko ezagutza, goxotasuna...

Gure txiki hauek uneoro ekintza, portaera eta jolas desberdinen bidez asko ikasten ari dira. Gustura eta lasai aurkitzen badira, helduaren presentzia ziurtatuz bere ezagutza maila areagotzen doa egunetik egunera. Aprobetxa ditzagun beraz momentu horiek eta biziki goza ditzagun.



KAKA ETA PIXA



Kaixo: Eneko naiz, 22 hilabete ditut eta entzun diet gurasoei esaten: "Maitaneri fardela adin honetan kendu genion", eta nik hori gertatu aurretik nire iritzia eman nahi dizuet:

Badirudi maskurian eta uzkie gihar batzuk ditugula, ireki-itxi egiten dutenak kaka eta pixaren atea eta hori behar bezain helduak garenean bakarrik egin genezakeela. Hori 24 hilabete inguruan ematen omen da batz bestea, baina noski, hori ez da denentzat hain horrela ematen. Beraz, pazientzia eduki, eta itxaron guk heldutasun hori lortu arte, zeren denek ez dugu garai berean lortzen! Nire amak 2.ean lortu zuen gidatzeko baimena eta aitak 6.ean, ba guk berdin!

Guk hori lortzeko ere ahalegin bat egin behar dugu, eta ez da erraza, hasteko gure gorputza ezagutu behar dugu eta somatu gure gorputzetik gauzak ateratzen direla. Gero kaka edo pixa diren bereizi eta izendatu. Gero ikasi noiz dugun maskuria betea eta, gainezka egin aurretik, komunera joateko eskatu. Kaka eta pixa gure gorputzetik ateratzen dira, gure zati bat dira? Komunetik behera doaz, zerbait galtzen dugu? A ze sustoa!



Denbora eta pazientzia behar dugu gauza hauetara guztietara egokitzeko, fardelean ordeztu orinalean egin, gero komunean... gero bonba bota...



Baina hau bakarrik ez, konturatzen ari gara handitzen ari garela, eta hori bai dela zaila. Zuek animatzen gaituzue baina hala ere ez gara oso ziur sentitzen eta ez dugu argi zer nahi dugun: mendia igotzen hasi edo magalean geratu. Handitzea abentura bat da: bakarrik jan, besotan gutxixeago ibili, txupetea utzi... baina gauzak amari eskatu gabe hartu, anaiaren jostailuekin ibili ere... Baina batzuetan ez dugu jakiten zuek zer nahi duzuen guretzat.



A ze nahaste-borrastea!

Baina, hori bai, banaka eskatuz gero hobe!

Gainera gu ere konturatzen gara kaka eta pixa guk nahi dugunean eta nahi dugun moduan erabili genezakeela, hau da zuek amorrarazteko erabili genezakeela edota baita zuei gure maitasuna adierazteko ere. Beraz, zuek eskatzea ez da aski, gurekin eta gure borondatearekin kontatu behar duzue!

Baina beno, nik lagundu egin nahi dizuet eta arrasto batzuk eskaini:

1. 24 hilabete baino lehen, hobe ez hastea.
2. Errepara zaitezte ia fardela lehorra edukitzeko gai garen garai luze batez.
3. Galdetu, agobiatu gabe, ea zer egin dugun kaka edo pixa, guk bereizten ditugun jakiteko. Honela ez bada, pazientzia, ez da garaia eta!



4. Gauza hauek gertatzen ari direnean galdetu ea orinala edo komuna nahi dugun. Gure aukera errespetatu, ziur sentitu arte. Noiz egiten dugun konturatuz gero proposatu zenezakete: jaiki ondoren, bazkal ondoren. Eta momentu horietan esandakoa egiten badugu paketea kentzea pentsatzen hasi zintezkete. A! Beste gauza bat, jakin lehenengo kakaren kontrola, gero pixarena egunez eta, bi hauek lortu ondoren, gauekoa datorrela.
5. Fardela kendu ondoren, zuek guri tarteka gogoraraztea lagungarri izaten zaigu baina utzi guri eskatzen ere.
6. Fardela kenduz gero ez jarri berriz, gu bestela "liatu" egiten gara, eta pentsatzen dugu ez dugula lortuko edo agian ez duela merezi esfortzu hori egitea.

Beraz, guraso maiteak, gure borondatea kontuan hartuz, lagun gaitzazue ikasketa honetan, eta, ez ahaztu, pazientzia.

Eneko.



NAZIO ARTEKO GIZA ESKUBIDEEN EGUNA

Pasa den abenduaren 12an, urteroko egiten den bezala, Nazioarteko giza eskubideen eguna ospatu zen. Hori dela eta, gure DBH 4. mailako ikasleek gai garrantzitsu honetaz beraien iritzia osa zezaten, Xabier Galardi, Herrien eskubideen ligako partaidea, etorri zitzaigun. "Etika eta eskubidea" ideietan oinarriturik zera azpimarratu zuen Galardik: "Mundu kontsumista batean murgilduta gaude, ..., dagoeneko ez gara konturatzen gure jarrerak zer ondorio dakarkion herri eta sektore txiroei". Gainera, eskubideaz aritzerakoan, norbanakoen eskubideaz gain, Galardik, Herrien eskubideak azpimarratu zituen: "Ezin dira Herri eta herritarren eskubideak bi atal ezberdin bezala aztertu, biek enbor batek bezala sustrai berdinak dituzte".





Durangoko liburu eta disko azoka, euskal kulturari jarraipena eman nahi dionarentzat erreferente galezina bihurtu da. Zein da argitalpenen ibilbidea gure eskuetara iritsi arte? Zein urrats ematen ditu idazle batek bere lana argitaratua izan dadin? Guzti honetaz hitz egiteko, eta Durangoko azokara behar den ezagupen guztiarekin joateko asmoz, Elkarlanean argitaletxean koordinatzaile gisa aritzen den Gurutze Osa ikastolara etorri zitzaigun. Berak emandako datuak benetan harrigarriak dira. Bazenekiten urtean Euskal Herrian 1400 liburu argitaratzen direla euskaraz, eta hauetatik 450 testu-liburuak direla, 400 dibulgaziorako, 300 ipuin eta 250 helduentzako direla?...



Euskararen ikuspuntutik Oiartzuarrek bizi duten egoera pribilegiatua dela esan dezakegu. Gure gazteak, Euskal Herrian bere osotasunean, euskarak bizi duen egoera tamalgarri eta anitza jabe daitezen, Euskal Kontseiluan partaidea den Joxe Iñigok Udaletxeko areto nagusian hitzaldi bat eman zigun. Oiartzunen murgilduta, Euskara "gaixo" dagoela esatea harrigarria irudituko daiteke, baina errealitateak hala dio: Euskararen erabileraren kopurua gero eta handiagoa izan arren, gaur egun Euskal Herriko biztanleriako %80-k ez du euskara erabiltzen.

Egoera larri honen aurrean administrazioak egiten duena ez da nahikoa eta, beraz, Kontseiluak martxan jarri duen "plan estrategikoak" bere biziko garrantzia du.



LH 6. MAILAKOEK, EUSKARA KLASETAN, HAINBAT JENDEREKIN ELKARRIZKETAK EGITEKO AUKERA IZAN DUGU. HONA HEMEN HORIETAKO BAT.

Ingeru Palomo, Haurtzaro Ikastolako ikasle ohia, irakasle izateko ikasketak ari zela, gurekin praktikak egitera etorri zen. Orain elkarrizketa egin nahi diogu:



• **Kaixo, zer moduz zaude?**

Ongi, ongi. Zuen artean ondo.

• **Nola joan zitzaizkizun ikasketak?**

Haurtzaro Ikastolan gaizki. Ikasle bihurria nintzen. Gero Donostian LOGSE egin nuen. Eta ikasketetan orain ondo.

• **Momentu honetan zer egiten ari zara?**

Orain, praktikak egin ondoren, psikopedagogia ikasten ari naiz eta tarteka beste lanak.

• **Gurekin egindako praktikak ondo joan ziren, ez da?**

Bai, gauza asko ikasi nituen.

• **Zuk non egin nahi duzu lan: urrutiko edo hemen inguruan?**

Momentu honetan berdin zait, baina gustura joango nintzateke urrutira.

• **Zeinekin nahi duzu lan egin, txiki-ekiekin edo handiekin?**

Adin bakoitzak du bere xarma. Adin guztiak gustatzen zaizkit. 11-12 urtekooi pazientziaz irakatsi behar zaizue.

• **Zein arlo duzu gustuko?**

Euskara asko gustatzen zait. Ingurunea ere ongi dago.

• **Beno, bukatu aurretik zerbait esan nahi al duzu?**

Kalean topatzen garenean kasu egiteko: ez izan antipatikoak.

Hauxe izan da gure elkarrizketa. Ez dugu bukatu nahi baina amaiera eman behar diogu. Zorte ona izan lanean! Agur eta hurrena arte!

Beñat, Zohartze, Naroa eta Borja



LOS JÓVENES Y LA VIDA

Es conocida la importancia que tiene la vida y el poco valor que le damos los jóvenes.

Normalmente, y sobre todo entre los adultos que tienen hijos en la adolescencia, las personas unen la experiencia de ser joven con el hecho de vivir la vida en el mundo del alcohol y las drogas.

Desde el punto de vista de los jóvenes, esto no es verdad. No sólo por ser joven se tiene que beber alcohol o tomar drogas. La edad no influye en el consumo de ciertas sustancias, que tomadas con control, no tienen por qué destruir la vida.

Es verdad que algunos de los jóvenes de hoy en día consumen, pero hay muchos que no lo hacen.

En algunos casos, los jóvenes toman drogas o alcohol para poder aislarse de la vida, de su vida social, de sus problemas. Quizás porque tienen complicaciones entre los amigos, buscan en estas sustancias la libertad que no encuentran en los demás aspectos de la vida.

Por otro lado, sin tener ningún problema, los jóvenes también beben con el simple objetivo de pasárselo bien. Es verdad que deberían beber sin exceso, para así no tener que pasar un mal rato. La única manera de solucionar esto, es teniendo control. Esto es lo único que sirve para poder pasárselo bien y no excederse.

Aunque haya gente que beba simple y únicamente para emborracharse y evadirse a otro mundo en el que viven en libertad y felicidad, hay otra gente que bebe para pasar un buen rato o simplemente por tener sed.

Pero no solamente son las drogas o el alcohol los que rigen la vida de los jóvenes. También el amor, las ganas de ser libre, la amistad... son los elementos principales, que quizás, producen los problemas que luego conllevan a beber alcohol o a drogarse.

Es decir, si por alguna causa, algún joven sufre percances entre sus amigos o su pareja, tiende a beber o a consumir drogas para aislarse de los problemas que tienen en la vida real, e imaginarse un mundo aislado de problemas.

Los jóvenes de hoy en día viven dependiendo de sus padres desde la infancia, pero llega un momento en el que los jóvenes, no todos, quieren ser independientes y vivir solos o en compañía, fuera de casa.

Los jóvenes, aunque no lo admitamos, vamos por la vida creyendo que sabemos todo y no es así. Aunque digamos que no, los jóvenes necesitamos a los adultos, que aunque en algunos momentos no tengan razón, en otros sí que la tienen, porque la verdad es que las experiencias que han vivido, les han enseñado muchas cosas y ellos nos las quieren mostrar a nosotros. Aunque pensemos que todo lo hacen para fastidiarnos, con los años nos daremos cuenta de que todo lo hicieron para ayudarnos a ser personas mejores y a no tropezar en las mismas piedras en las que ellos cayeron.

Resumiendo, la vida de los jóvenes está basada por una parte en sentimientos negativos, como la tristeza, el descontrol, la desgracia, la soledad... y por otra parte, en sentimientos positivos como la amistad, el amor, la libertad, las ganas de vivir...

Todos estos sentimientos rigen la vida de un adolescente y también la endulzan o la amargan.

Está claro que estas cosas únicamente suceden entre los jóvenes y sus vidas.





INFORMATIKA EUSKALDUNTZEN:

UZEIren sinonimo hiztegiko MSWord programa aurkeztu berri du HAURTZAROk ikasle ohi batek, IMANOL OLAIZOLA ARBELAITZek, bere karrera bukaerako proiektu bezala

IMANOL OLAIZOLA ARBELAITZ Ergoien auzoko semea dugu. 1978ko maiatzaren 5ean jaio eta hiru urterekin etorri zen lehen aldiz Haurtzaro Ikastolara. 17 urte arte bertan egin zituen bere ikasketak, BBBko ikasketak ere Haurtzaron egitea erabaki baitzuen.

UBIko ikasketak amaitu ondoren, eta Matematikako mundua oso gustukoa zuela ikusita, Informatikako karrera egitea aukeratu zuen. Horrela bada, Donostiako EHUKo fakultatean Injineru Informatikoa egin zuen. Hau bukatutakoan, bere karrera bukaerako proiektu bezala UZEIren sinonimo hiztegiko MSWord programa aurkeztu berri du, eta 10eko nota jaso du gainera.



Gai hau dela medio, berarekin solasaldi bat egiteko asmotan elkartu gara eta hauxe da kontatu diguna:

Nolatan aukeratu zenuen proiektu hau eta noren babesean aritu zara?

Imanol: Informatika fakultatean badugu talde eraginkor bat: IXA taldea deritzana, hain zuzen ere. Talde honetan bertako 8 irakasleez gain hainbat ikasle eta ikasle ohi biltzen gara. Talde honen eginkizun nagusienetakoa euskararen erabilera sustatzeko lagungarri izango diren gailu informatikoak bideratzea da.

Nire kasuan, talde honetako partaide naizenez, bekadun modura proiektu hau bideratzea erabaki nuen. Proiektu hau nire karrera bukaeran aurkeztu beharrekoa izango zen.

Zenbat denbora eman duzu proiektu honetan?

I.: 2001eko martxoaren batean hasi nintzen eta 2002ko urtarrilaren 30ean aurkeztu nuen proiektua Donostiako Fakultatean. Bekadun moduan hasi nintzen, eta horretarako lanaldi erdia neukan. Baina berehala konturatu nintzen denbora gehiago eskaini behar niola eta egunero-egunero sei bat ordu sartu ditut proiektuan.

Zertan datza zuk aurkeztutako proiektua?

II.: Idazkera aberatsik izan ez eta ordenagailuan idazten aritzen garenontzat tresna aparta da aurkeztu berri dudana hau. Word ingurunean idazten ari garen bitartean, idatzi berri dugun edozein hitz ordezkatu nahi izanez gero, tresna honek hitz horren sinonimoak zerrendatuko dizkigu. Sinonimo bakoitzarekin batera informazio gehigarri bat ere ematen da (mota, erabilera...).



Badakigu oso gustura jardun duzula lanean proiektu hau dela eta...

I.: Euskara maite duen informatikari batentzat ez da berdina gaztelerako edo ingeleserako produktu bat egitea edo hizlari euskaldunak laguntzeko produktua sortzea. Hau da, euskaldun informatikari batek motibazioa bikoitza dauka euskararako tresna sortzen ari denean.

Karrera amaitu duzu, azken proiektua aurkeztua... zertan zabiltza une honetan?

Beno, hitz hauekin agurtu dugu Imanol Olaizola. Oso oroimen onak omen ditu Haurtzaro Ikastolari buruz eta gustura etorri da guregana. Zorionak Ikastolako partaideen aldetik!!

Askotan esan ohi da hizkuntza batek bizirik iraun behar baldin badu, garai berrietara egokituz izan beharko duela. Euskarak, lan ingurune berrietan ere bere lekua izateko, hiztegi aberatsa garatu du eta zientzietarako balio ez zuen hizkuntza zela esaten zuten ahotsak isilarazi ditu Imanol Olaizolak egindako proiektuak.

I.: Proiektua aurkeztu bezain agudo, beste beka bat eskaini zidaten antzeko lanekin jarraitu ahal izateko. Baina, badaezpada ere, nire curriculuma bidaltzen hasi nintzen urtarilaren 31n, hainbat enpresa jakinetara. Eta berehala lana aurkitu nuen. Izan ere, nire curriculuma bidali Interneten bitartez, eta 10 minutura lan eskaintza bat nuen nire esku artean. Horrela bada, dagoeneko lanean ari naiz, INTERLINEA 2000 izeneko lantokian. Oso gustura gainera.

Imanol Olaizola Arbelaiz ex alumno de Haurtzaro Ikastola acaba de presentar el proyecto de fin de carrera en la facultad de Informática de la UPV en Donostia. Se trata del programa MSWord del diccionario de sinónimos de UZEI. Por medio de este programa, cualquier persona que no tenga una narrativa óptima, y que escriba en euskara podrá mejorarla, ya que mientras escribimos cualquier palabra podremos reemplazarla gracias a este diccionario de sinónimos incorporado al ordenador.

Para realizar este proyecto contó con una beca de la facultad, y con la ayuda del grupo IXA, pionera en la euskaldunización informática, y que trabaja en la misma facultad.

En la presentación del proyecto, el día 30 de enero, Imanol logró la nota máxima: UN 10. Una vez finalizado el proyecto, podía haber continuado en la facultad como becario; pero ha preferido iniciarse en el mundo laboral, en la empresa Interlínea 2000.

Desde estas líneas felicitamos a Imanol por su trabajo.



MIKEL ANTERO URRUTIKOETXEA

ETBko Hasiberriak telesailko Jokin, gure artean izan zen Inauterietako jaialdian. Izan ere, jaialdiko aurkezle lanak egiteko berehala eman zuen bere izena, eta berarekin batera Edurne ere etorri zen guregana. Aitzakia hau aprobetxatuz, bi hitz egin ditugu berarekin.

Oiartzunen jaioa dugu Mikel, duela 22 urte. Bi senidetik, bera da ttikiena. Hiru urterekin hasi zen Haurtzaro Ikastolan, eta BBBko ikasketak ere bertan egin zituen.

Nola gogoratzen dituzu hasierako urte haiek Mikel?

Ttikia nintzenean, 3 urte arte, behinik behin, Karrikako Iturburu haur eskolan ibili nintzen. Han egin nituen nire lagunak handienak: Aitzol Bergaretxe, Asier Arriaga, Jabi Garzia, Ibon... Gero, Ikastolan hasita, oso oroimen onak ditut Ugaldetxoko eskolatan ibili ginenean. Maribi zen gure andereñoa eta Pello Añorga etortzen zitzaigun ipuinak kontatzera. A zer nolako urteak haiek!! Oso giro berezia zen, etxean bezala!!

Gaur egun Bilbon ikasten ari zara, Arte Ederak hain zuzen ere...

Bai, oso ttikitatik daukat Arte Ederretarako zaletasun hau. Nire familiak badu hor eragina. Izan ere, gure aitona margolaria da, Gabino Urrutikoetxea. Aitan aiekatik, berriz, musikariak dira gehienak. Eta hau dena pegatsi egin zaidala uste dut.

Txinpart aldizkariko ikonoak ere zuk eginak omen dira. Bai, halaxe da. BBB egiten ari nintzenean, Helena Santamaria irakasleak bazekien marrazkirako nuen zaletasuna eta Txinpart atera behar zen garaian, sailak definitu zirenean, niregan jarri zuten konfiantza guztia, eta nik diseinatu nituen saileko ikonoak: hau da mutil gazte bat da, baina eginkizun ezberdinetan antolatua, aldizkariko atal bakoitzera-ko.

Egia la da gaur egun musikan oso sartuta zabiltzala?

Bai, bai, eta oso gustura gainera. Eberlau izena du taldeak eta aste bukaeretan entseiatzen dugu Gurutzeko baserri batean. Lau partaide gara: Gari Arabolaza, Iñigo Segobia, Josu Artola eta ni neu. Bestalde, Ibargango Musika Eskolan nabil gitarra ikasten, eta bertako talde bateko abeslaria naiz.

Beno, Mikel, eta Hasiberriak telesailera nola iritsi zinen?

Kasualitatez izan zen. Telebistan ikusi nuen iragarkia eta joateko gogoia sartu zitzaidan baina joateko eguna iritsi zen eta etxean geratu nintzen. Azkenean oiartzuar batzuk joatekoak zirela enteratu nintzen eta haiekin joatea erabaki nuen. Oso lotsatia bainaz! Badirudi beraiek eskatzen zuten perfilaren barruan sartzen nintzela eta castinak pasatzen hasi nintzen; hilabete osoa eman nuen casting batetik bestera. Oso gogorra izan zen baina bertan lagunak egin nituen.

Behin aukeratua izan zinenean, nolako bizi-modua eraman duzu?

Hasiberriak telesailan 70 pertsona geunden lanean. Ia egunero grabatzea tokatu zait eta nire bizitza aldatu du erabat.

Esperientzia horrek bizitzarako balio izan zaituela uste al duzu?

Egia esan, telebistan ateratzeak bizitza aldatzen zaitu erabat. Niri behintzat esperientzia honek zerbait irakatsi nau: nire gauzetarako ardura izatea eta errespetu handia izan behar zaiola besteen lanari.

Eta orain zerrekin jarraitzeko asmoa duzu?

Denbora asko kendu zidan telesailan lan egiteak eta ikasketak utzi behar izan nituen; orain berriz hasi naiz. Baina oraintxe bertan... gauza asko ditut buruan, baina nahiago dut lehenengo Arte Ederrak izeneko karrera bukatu eta musikarekin ere aurrera jarraitu nahi dut. Komunikabideek asko betetzen naute eta hor jarraitu nahi nuke: bai narratiboki eta bai espresiboki, kamera aurrean edo atzean.



Lehen esan duzu telebistan ateratzeak bizi-tza aldatu dizula erabat. Nola daramazu famaren kontua?

Euskal Herrian ez dago beste lekuetan bezain beste-ko morboa eta jendea ez da zaintzen. Hori bai, erne ibili behar da jaialdi handietan; disimulurik ez dago Euskal Herrian! Baina oso ondo etorri zait pertso-nalki, jendearengan irekitzeko...

Jaialdiei buruz ari zarela... zer moduz pasa zenuen ikastolako Inauterietako festan?

Eskerrik asko elkarrizketa honengatik, Mikel. Espero dugu karrera ondo bukatzea eta hain gustuko duzun mundu horretan lanean jarraitzea.

Oso ongi pasa nuen! Oso esperientzia ona eta poli-ta izan zen niretzat: ikastolara etorri, gauzak nola aldatu diren ikusi, ikasleak, irakasleak,... barruko gauza bat kanpotik ikustea.


Eta Edurne Azuarak?


Bera ere oso gustura egon zen eta ondo pasa zuen. Bion artean oso ondo konpontzen gara.

MIKEL ANTERO URRUTIKOETXEA, ex alumno de Haurtzaro Ikastola, estuvo entre noso-tros estos Carnavales como presentador del festival de la tarde. Mikel es bien conocido por todos por su papel de Jokin en la serie de ETB Hasiberriak. Se presentó al casting y entró dentro de las expectativas de los responsables; él dice que entró un poco por casualidad. Ade-más, canta y toca la guitarra en el grupo llamado Eberlau

En estos momentos está estudiando Bellas Artes y la verdad, es que la afición por ella le viene de familia y la tiene muy arraigada. Es él quién ha dibujado los iconos para esta revista. Pero ahora quiere centrarse en sus estudios, terminar la carrera, pero el mundo de los medios de comunicación le llena mucho y le gustaría dedicarse a ello, tanto ante como detrás de las cámaras.


Desde aquí, le felicitamos a Mikel por su trabajo y lo animamos a que siga adelante con sus propósitos.





The Full Monty

The Full Monty is a very popular story; it is very funny but it has a serious part too. It is a story of modern times - a story of ordinary men who have been unemployed for a long time and feel that society does not need them any more. But above all, it is a story about changing direction, finding new friends and making a new start.




Gaz (Gary), an unemployed steel factory worker, needs a lot of money so he can continue seeing his son. That is why he plans the craziest idea in his life: He decides to copy a popular American male stripper's group by forming his own one together with some friends.

None of the men has never had any experience of taking their clothes off in public. Dave is very worried about his weight, Lomper feels lonely and depressed, Gerald hasn't still dared to tell his wife he lost his job months ago. These four men form a group with Horse and Guy in such a good combination that are sure to be better than the American group because they promise to take ALL their clothes off. Will they dare to go for the Full Monty?

You will know the answer if you read it, it really deserves doing it. That is why this is our recommendation this time. Enjoy it !!

DBH 4



ASMAKIZUNAK

1.- Iran-en azkena.
Nafarroaren lehena.
Edonork daramana
baina
zuk eta guk ez.

2.- Bi mendien arteko
tiro zaratatsua,
sudurra isteko modu-
ko tiro usaintsua.

3.- Zu zenbat eta
garbiago
ni orduan eta
zikinago.

4.- Oso naiz txikia
baina badut garantiza.
Ez naiz hizkia eta
amaitzen dut idatzia.

ERANTZUNAK

4.- Puntua


3.- Ura

2.- Puzkerra

1.- N



NORK EGIN DU....?



Nork bota du baloia uretara?

1. Eserita dagoenari ez zaio gustatzen baloiarekin jolastea.
2. Lapikoaren ondoan dagoena, lagunekin futbolean jolastea gustatzen zaio.
3. Baloia eskuetan duenak, futbolean jolastera doa.
4. Uraren ondoan dagoen pertsona horri, uretara gauzak botatzea gustatzen zaio.

Nork pasa du gaua kanpoan?

1. Baloia besapean daukan neskari intsektuak ez zaizkio gustatzen.
2. Makila daukan mutilari asko gustatzen zaio natura.
3. Eserita dagoen neskari ilargia eta ilargiaren lagunak(izarrak) ikustea gustatzen zaio.
4. Gorputz osoan ilea dauka.

Nori erori zaio sutan zegoen lapikoa?

1. Eserita dagoen neska erdi lotan dago.
2. Baloia erre kara eroria zaion mutikoak ostikada handiak jotzen dizkio baloiari.
3. Baloia duen neskak eta erreka ertzean dagoenak inoiz ez dute goserik izaten.
4. Makila duenak ikusten duen guztiari jotzen dio.



Oiartzo

BATXILERGO IKASTOLA

MATRIKULARAKO DEIAK:

943 62 38 04



Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa

zuri esker
gracias a ti



“Oiertzuarren
zerbitzura gaude”

Mendiburu kalea 2 • ☎ 943 49 47 19



CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA



ETXE ONENAK, S.A.

Bizitegi Sustapena

MENDIBIL BERRI kalitate handiko etxeak eraikitzen

Plaza de Guipúzcoa 2-3ª dcha. • 20004 Donostia • ☎ 943 42 95 21 • Fax 943 43 02 19



Biok ETXEGINTZA S.L.

Karaitza etxea • Garmendi bidea 3 • 20180 OIARTZUN
☎ 943 49 25 01 • Fax 943 49 25 01

construcciones ARABOLAZA S.L.

Berriztatze lanak

Casa Antsillas Berri (Gurutze) • 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 365 • Postakutxa 16 • Fax 943 493 772



Hotel LINTZIRIN s.a.



☎ 943 49 20 00 • Fax 943 49 25 04

CTRA. MADRID - IRUN KM. 469 • e-mail: lintziri@adegi.es
OIARTZUN - GIPUZKOA



TAJO

Industrias Tajo, S. Coop.



MONDRAGON
COMPONENTES

NIESSEN

ABB Niessen, S.A.

Polígono de Aranguren s/n • 20180 OIARTZUN
☎ 943 260 101 • Fax 943 260 250

Alcampo

OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



AMENABAR

AENOR



Empresa
Registrada

ER-424/2/96

SEAT

Ederki, s.l.

Ihurrita Bidea 13 - 6. lokala • 20180 OIARTZUN • ☎ 943 49 16 41



OIARTZUN LANTEGIAK, S.L.

Konponketak, Erakusketa, Salmetak eta Karrozeria

Ihurrita Bidea 13 - 1. lokala • 20180 OIARTZUN • ☎ eta faxa: 943 49 18 48 - 943 49 41 36



Bianditz, C.B.

Txapa eta pintaketa
Diagnosia
Salmetak
Mekanika

Altzibar auzoa - Artikutza Bidea z/g • 20180 OIARTZUN
☎ 943 49 08 46 - 943 49 12 23 • Faxa: 943 49 08 46

Carrefour



OIARTZUN MERKATARITZA ZENTRUA